

**“SANCTI SPIRITUS” ZAHARREN EGOITZAKO BEZEROEN ESKU HARTZE**  
**INTEGRALA ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK**

**1. KONTRATUAREN HELBURUA**

“Sancti Spiritus” Zaharren Egoitzako bezeroen esku hartze integrala zerbitzua emoteko lan taldea kontratatzea..

**2. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena publizitateagazko prozedura negoziatu bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 163-168. artikuluetan bat etorritz.

**3. ESLEIPEN IRIZPIDEAK**

Esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

*AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: **gehienez ere 60 puntu.***

**ESKAINZA EKONOMIKOA**

Gehienezko puntuazioa (60 puntu) emongo jako eskaintza merkeenari. Gainerako eskaintzetarako, berriz, eskaintza merkeenaren eta zenbatezten dan lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza biderkatzeko formulatik lortutako emaitza erabiliko da. Azken hori irizpideari ezarri ahal jakozan puntu guztien kopurua izango da.

$$P = (Ob \times 60) / OI$$

P: Lortutako puntuazioa da.

Ob: Eskaintza ekonomikorik merkeena izango da.

OI: Balioesten dan lizitatzaillearen eskaintza da.

*AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIRAN IRIZPIDEAK: **gehienez ere 40 puntu.***

**ZERBITZUAREN ANTOLAKETARI BURUZKO MEMORIA TEKNIKOA: 0 eta 30 puntu bitartean**

Irizpide hau baloratzeko, lizitatzailleak memoria teknikoak aurkeztuko dau, eta bertan adieraziko dau baldintza teknikoetan deskribatutako lan eta eginkizun guztiak gauzatzeko erabiliko dena metodologia, zerbitzuaren prozedura, funtzionamendu-organigrama eta koordinazioa, baita ebaluatzeko metodoa ere.

- Zerbitzua garatzeko eta antolatzeko programa: gehienez 20 puntu.
- Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuagaz koordinazio sistemak eta zerbitzuko inzidentzien aurrean jarduteko protokoloak izatea: gehienez ere 10 puntu

Irizpide horregaitik, gehienez ere **30 puntu** emongo dira.



**ESKAINITAKO HOBEKUNTZAK, betiere kostu gehigarria areagotzen ez badabe eta zuzenean lotuta badagoz kontratuaren xedeagaz: 0 eta 10 puntu bitartean.**

Baldintza teknikoan pleguetan jasotako gitxienekoetan jasota ez dagozan proposamenak onartuko dira, beti ere zerbitzuaren xedeagaz zerikusia badaukie. Adibidez, proposamen bereziak (zerbitzurako ekintza eta lan gehigarriak), ordutegiak arazo zehaztutara egokitzea,... Gehienez ere **10 puntu** emongo dira.

#### **4.- BALIZKO FUNTZIOAK**

Kontratatu nahi dan zerbitzuaren funtzio orokorrak honakoak dira:

- Bezeroen balorazioak
- Bezeroen PAI-ak (Plan Actuación Individual) gauzatzea
- Txostenak gauzatzea
- Bezeroen funtzioetan antzemandako gertakariez informatzea.
- Jarduera psikologikoa edo antzekoa garatzen daberen kanpoko beste agenteekaz koordinatzea
- Aisialdiaren esparruan ekintza sozio-hezitzaileen bidez bezeroen garapen integrala sustatzea
- Psikoestimulazio eta animazio soziokulturaleko teknikak garatzea bai banan banako zein talde eskuhartzeetan
- Beraien inguruarenganako harreman positiboa jorrateak daukan garrantziaz bezeroak motibatzea
- Agindutako errehabilitazio teknikak eta tratamenduak gauzatzea
- Bezeroekaz talde kirol ariketak gauzatzea
- Tratamenduen jarraipena lanak gauzatzea
- Bezeroen egoera fisikoen gaineko gertakariez informatzea
- Bezeroen ahalmen fisikoen balorazioak gauzatzea
- Lan taldeagaz koordinazio batzarretan partehartzea

#### **5. LAN TALDEAREN EGITURA**

Bi profesionalen osatutako lan taldea aurkeztu beharko da. Hauetako batek, Arlo Psiko-Sozio-Hezitzaileagaz zerikusia daukan eta horretarako gaitua dan perfil profesionala eduki beharko dau eta besteak Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoaren arloagaz zerikusia daukan eta horretarako gaitua dan perfil profesionala.

#### **6. ZERBITZUA EMOTeko TOKIA:**

Bermeoko "Sancti Spiritus" Zaharren Udal Egoitza, Tonpoi bidea z/g.

Baldintza-agiri honetan ezarritako orduan eta lekuan eman beharko da zerbitzua, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorritik. Dana dala, Administrazioak, kontratuak dirauen bitartean, hitzartutakoa ez, beste leku bat aukera daieke.



## 7. EUSKARAREN ERABILERA

Lanak egiten jardungo dauan enpreseak, Patronatuari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Patronatuak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

Bermeon, 2017ko urtarrilaren 18an

